

NAFARROAKO XAKE FEDERAKUNDEAREN DENBORALDI BERRIA HASTEAR DAGO (2017ko urriaren 7an hasiko da)

2017ko irailaren 21ean Nafarroako Xake Federakundearen Asanblada bildu zen. Bilera horretan, beste gauzen artean, 2017-18ko Araudia eta egutegia onartu ziren.

HURRENGO TXAPELKETAK.

2017-10-07: Xake Azkarreko Taldekako Txapelketa (25 minutuko partidak).

2017-10-14/11-25: Nafarroako Taldekako Xake Txapelketa. Berritasun bat dauka aurten: Lehenengo Mailatik Bigarrenera 5 talde jaitsiko dira eta Bigarren Mailatik Lehenengora bat igoko da. Beraz, ondorengo denboraldian 8 talde izanen dira Lehenengo Mailan.

2017-12-26/31: Eguberriko Xake Txapelketa.

2018-01-02/07: Jokalari beteranoen Nafarroako Xake Txapelketa. Txapelketa hau berria da, azkeneko urteetan titulua Nafarroako Banakako Xake Txapelketan erabaki baita.

JOKALARIEN LIZENTZIAK.

Denboraldiaren hasiera gainean dagoenez, jokalariek lizentzia lehenbailehen atera beharko dute. Aurten 35 euro izanen dira helduentzat; 25 euro 18 urtez azpikoentzat eta 20 euro 10 urtez azpikoentzat.

2017-09-22.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.